



PUZKER GAUA


Antton Dueso

*Miel Anjel Elustondoren moldapena
Egilearen marrazkiak*

Desclée De Brouwer



1. Tolosako babarrunak



Ez buru ez buztan zuen gauak. Ez buru ez buztan zuen mahai gainean zegoen bost kandelako argimutilak, behin halako Hiper Eroskin erosiak. Ez buru ez buztan zuen aita traje jantzita ikusteak, korbata eta guzti. Ez buru ez buztan zuen ama Zaran erosi eta pixkanaka pagatutako soineko bat jantzita ikusteak. Ez buru ez buztan zuen arreba gona negargarria jantzita ikusteak, are negargarriago egiten zuen laxo gorri handi eta guzti; begiratzeak berak ere min egiten zuen.

Ez buru ez buztan zuen ezerk. Absurdoa zen dena. Okerrena, hala ere, lojistikari batere gabekoa, Tolosako babarrunak jan beharra, odolki, txorizo eta guzti, gauaren erdian.





Baina, goi-mailako gonbidatua zuten gau hartan afaltzen eta, nonbait, merezi zuen saiatzea. Punkiren familia zurikeria eta zurikeria zen. Pertsonaia tripaundiari zurikerian egin behar. Zilborraundia, bitartean, jan eta jan, izerditan.

—Babarrun goxoak, Zuzendari jauna? Tolosakoak dituzu!

—Beste pixka bat, Zuzendari jauna?

—Piperminik, Zuzendari jauna?

Punkiren aita mailaz gora egiteko moduan zegoen fabrikan. Zuzendaria afari lerdo hartatik pozik ateratzea hil ala bizikoa zen. Eta nahiz eta Punkik pentsatu bera ere lerdoarena egiten ari zela, eginahalean ari zen laguntzen. Bazekien, jakin ere, bere aitag mailan gora eginez gero, soldata igoko ziotena. Ondorioz, berari igandeetan ematen zioten eskupekoak ere gora egingo zuela...

—Primerakoak! Bihotz-bihotzez esker-tzen dizuet gonbidatu izana! Eta nire herriko babarrunak, gainera! Benetan, portatu zarete! Ez dago zuek bezalakorik!

Kafea hartu eta kopak eta puruak etorri ziren gero. Patxaranari bosgarren zurrutada



egin ondoren, gonbidatua haurtzaro minez hasi zen.

—Gure familia, hura bai familia! Tolosako haurtzaroa datorkit gogora. Amona artazuriketan; aitona, su ondoan jarri eta kontu zaharrak kontatzen; gurasoak...

Zuzendaria haurtzaroko kontuak berritzen ari zela ere, Punkiri bost ardura! Kasurik ere ez zion egiten. Bere sabelari eusten nahiko lan bazuen Punkik. Babarrunak jan zituzten eta ondorioak! Bere erraiak burruka bizian zebiltzan, haize handiak medio.

—Eta, hala ere, gehien-gehien gogoratzen dudana, Tolosako etxeak zuen usain sarkorra. Behin ere aditu dudana usainik sarkorrena, seguru!

Eta gonbidatua arnasa sakon hartzen ari zenean, haurtzaroko usain sarkor hura berritu nahian ari zenean, Punkik ezin izan zien barruko haizeei eutsi eta egundalako puzker handia egin zuen:

—Prrrrttt!

Hondamendia izan zen hura. Aurrena ezin sinetsita begiratu zioten. Hurrena, nazka-nazka eginda bezala. Amak leihoa



ireki zuen, presaka. Arreba larri-larri hel-
du zen komunera; ozta-ozta ez zuen komu-
neko baldosa distiranteetan egin botaka.
Zuzendari jaunak eskuzapia hartu eta su-
durzuloak itxi zituen, Tolosako usain jator
hark eragiten zion botagureari nola-hala
eutsiz. Usain peste hartan, Punkiren aitak,
psikopata hiltzaile arriskutsuaren aurpegia
zuela, heldu semeari belarritik eta logelara
eraman zuen arrastaka.

—Familia lotsagarri utzi behar hik beti
ere! Hilabete telebista ikusi gabe!

Eta logelatik atera zen aita, ateari dan-
batekoa emanda. Punki ohe gainean etzan
zen. Zeharo minduta zegoen, burumakur,

